

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Arabako zurgintzaren sektoreko hitzarmen kolektiboaren aurreraeragin-aldia luzatzeko akordioa

Ebazpena, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkarirena. Honen bidez ebatzen da, Arabako zurgintzaren sektoreko hitzarmen kolektiboaren aurreraeragin-aldia luzatzeko erabakia erregistratu, argitaratu eta gordailutzea Hitzarmenaren kodea: 01001005011981.

AURREKARIAK

2020ko abenduaren 28an aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, aipatutako hitzarmen kolektiboko negoziazio batzordearen akta, enpresaburuena SEA Empresas Alavesas eta langileen ordezkariek UGT, ELA, eta CCOO, 2020ko abenduaren 28ko negoziazio-mahaian sinatutakoa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuko 15.1.h artikulua –Lan eta Justiziako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2017ko apirilaren 21eko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Hitzarmen kolektiboaren negoziazio batzordeak hartutako akordioa aipatutako Langileen Estatutuari buruzko Legeko 88, 89 eta 90. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki sinatu da.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 8a

Arabako lurralde ordezkaria
CARMEN DE CELIS CUEVAS

Arabako zuraren industrien sektoreko hitzarmen kolektiboaren negoziazio-mahaiaren akta

Gasteizen, 2020ko abenduaren 28an, 09:30ean, Lan Harremanen Kontseiluaren (PRECO) Arabako lurralde-egoitzan bildu da Arabako zuraren industrien sektoreko hitzarmen kolektiboaren negoziazio-mahaia. Han izan dira UGT, ELA, LAB eta CCOO sindikatuetakako ordezkariak, SEA Arabako Enpresak elkarteko ordezkaria, LHKren PRECO kudeatzeko lurralde-arduraduna eta LHKren bateratzaileen eta bitartekarien elkargoko MALMen arduraduna, azken hori akten idazkari gisa jardunez.

Arabako zuraren industrien sektoreko 2016-2018ko hitzarmen kolektiboaren negoziazio-batzordea bilduta, batzorde horrek erabaki du laster amaituko dela batzordeak berak 2020ko ekainaren 17an hartutako erabakiaren bidez ezarritako aurreraeragina (ALHAO, 2020ko uztailaren 20koa, 81. zenbakia).

Hori dela eta, sektoreko hitzarmen kolektiboaren aurreraeragin-aldia 2020ko abenduaren 31n amaitzen denez, alderdiek erabaki dute 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzea, egun hori barne.

Hitzarmen kolektiboaren negoziazio-batzordeak erabaki hori hartu du, LABen adostasunik gabe, hitzarmenaren negoziazioan akordioak egiteko dagoen aukera erabilita (Langileen Estatutuari buruzko Legearen 86.3. artikuluan aurreikusita dagoena).

Era berean, negoziazio-batzordeak erabaki du lan-agintaritzari igortzea erabakia, erregistratu eta ofizialki argitara dezan. Horretarako, Lan Harremanen Kontseiluko presidentea eta Arabako PRECOren kudeaketarako lurralde-arduraduna ahalduntzen ditu, bata zein bestea.